

6 > AZOKAN



aisa

AURKIBIDEA

1. Sarrera	
1. Irakaslearentzako oharrak.....	2
2. Ikastunitatearen ibilbidea.....	3
3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak	4
2. Atazak	
A Ataza: Janariak	5
B Ataza: Julianaren erosketak.....	7
C Ataza: Azokan	9
D Ataza: Janaria erosten.....	11
3. Eranskinak	
1. Bideo-pasarteak	12

1. Sarrera

1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Azoka eta janariak izango dituzu ikastunitate honen gai nagusiak. Hori dela eta, ikasleek gure kontsumo eta erosketa ohituren berri izango dute.

A atazan, elikagaien sailkapenarekin batera, Euskal Herrian gehien kontsumitzen diren janariak ezagutuko dituzte. Hau izango da beren ohiturak eta hemengoak alderatzeko unea.

Julianak sukaldaritza-eskolarako janariak zein establezimendutan erosiko dituen identifikatu behar dute **B atazan**, eta nork bere etxeko erosketa-zerrenda osatuko du.

Azokaren eta hipermerkatuaren arteko aldeaz arituko gara **C atazan**. Orain, azokan erosketak egiteko egoera ezagutuko dute, eta , bukaeran, elkarri galdetuz, zerrendako produktuen prezioak osatuko dituzte.

Nork bere janari zerrenda erabiliz eta aurrekontu mugatuarekin, **D atazan**, azokaren egoera antzeztuko dute. Ikastunitatean zehar ikusitako egiturak eta hiztegia erabiltzeko unea izango da hau.

2 IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

1. SARRERA

- Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena

(. or.)

A ATAZA: JANARIAK

- Kontsumo taula osatu
- Janari taldeak eta produktuak lotu
- Nork bere herriko janariak aipatu
(. or. irak. lib.) (. or. ik. lib.)

IRAK/MINTZ

B ATAZA: JULIANAREN EROSKETAK

- Elkarrizketa entzun eta erosketa-zerrenda egokia aukeratu
- Julianaren zerrendako produktuak establezimendu egokiekin lotu
- Etxeko erosketa-zerrenda idatzi
(. or. irak. lib.) (. or. ik. lib.)

ENTZ/IRAK/MINTZ/IDAZ

C ATAZA: AZOKAN

- Azokako egoera ikusi eta taula bete
- Binaka, zerrendako prezioak osatu
(. or. irak. lib.) (. or. ik. lib.)

ENTZ/IRAK/MINTZ/IDAZ

D ATAZA: JANARIA EROSTEN

- Establezimenduak aukeratu
- Salerosketak antzeztu
(. or. irak. lib.) (. or. ik. lib.)

IRAK/MINTZ

3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

HELBURU NAGUSIA

- Janarien salerosketa harremana ezagutzea

LEXIKOA

- Amuarraina, antxoa, ardi-gazta, ardoa, arkume-txuletak, arraina, arrandegia, arrautza, arroza, atuna, azukrea, babarrun gorriak, babarrun zuriak, balio izan, baratxuri burua, barazkia, barazkijalea, botila, dilistak, edaria, erosketa-zerrenda, errege-sagarra, esnea, esnegaina, esnekia, espagetiak, espinaka, euro, fideoak, freskagarriak, fruta, fruta denda, gaileta, ganba, garagardoa, garbantzuak, gatza, gazta, gozokia, gramo, gurina, haragia, haragijalea, harategia, hipermerkatua, ilarra, irina, janari azoka, janaria, jogurta, kafea, kiloa, kopurua, laranja, legatza, lekalea, letxuga, limoia, makarroiak, mamia, mandarina, marrubia, muskuilua, muxila, ogia, oilaskoa, okindegia, oliba-olioa, paketea, paneka, patata, patxarana, perrexila, piperra, platanoa, porrua, produktua, sagarra, saiheskia, supermerkatua, tipula, tomatea, txahal-xerra, txerri-solomoa, txibiak, txitxarroa, txokolatea, txuleta, udarea, ura, urdaiazpikoa, xerra, zentimoa, zerba, zereala, zukua...

MINTZAGAIAK

- Elikagaiak (A)
- Kontsumo ohiturak (A)
- Azoka (C)
- Erosketak (D)

ELKARRERAGINA

- Hainbat produkturen salneurria elkarri galdetzea (C)
- Ikusitako elkarrizketak praktikatzea (D)

KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Elikagaien izenak ezagutzea (A)
- Elikadura-ohiturak trukitzea (A)
- Herrialdeetako elikagaien berri izatea (A)
- Entzundako janari-zerrenda ulertzea (B)
- Erosketa-zerrenda osatzea (B)
- Azokako elkarrizketak ezagutzea (C)
- Elikagaiak eta neurriak ezagutu eta egoki erabiltzea (C)
- Prezioa galdetzeko egiturez jabetzea (C)

GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- Janariei buruzko hiztegia (B)
- Kantitateak adierazteko egiturak (B) (C)
- Prezioa galdetzeko eta adierazteko egiturak (C)

EUSKAL KULTURA / GIZARTEA

- Janari-motak (A)
- Kontsumo-ohiturak (A)
- Azoka (C)
- Establezimendu-motak (D)

2. Atazak

A ATAZA: JANARIAK

65'

Helburu nagusia:

- Elikagaiak ezagutzea eta Euskal Herrian gehien kontsumitzen direnen berri izatea.

Helburuak:

- Elikagaien izenak ezagutzea.
- Elikadura-ohiturak trukitzea.
- Herrialdeetako elikagaien berri izatea.

ZERTAN DEN:

- Irudien bitartez elikagaien sailkapena ezagutu ondoren, ikasleek produktu horiek kontsumitzeko duten ohitura adieraziko dute koadroan. Ondoren, produktu ohikoenen berri izango dute eta euren herrialdeetan jaten dena eta jaten ez dena azalduko dute.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Eskatu ikasleei irudietako pertsonak zer jaten ari diren identifikatzeko. Galdetu ikasle guztiei zein irudirekin identifikatzen diren eta ba ote dagoen jaten ez duten produkturik osasun, erlijio edo ideologia arrazoiak direla eta. (10')

Ataza

- Ikaslearen liburuan bederatzi elikagai daude. Ikasleek produktu bakoitza astean zehar zenbat aldiz kontsumitzen duten adieraziko dute taulan. (Nahikoa izango da gurutze bat egitea dagokion laukitxoan.) (10')

Feedbacka

- Komentatu ikasleekin euren ohiturak eta galdetu zer jaten duten gehien. (5')

2

Atazaurrea

- Ikasleek hainbat janari-multzo dituzte liburuan; eta multzo bakoitzean ohiko produktuen argazkiak eta izenak. Galde iezaiezu ea ezagutzen dituzten argazkietako produktuak? (10')

Oharra: Produktuak ezagutu ezean, beharrezko azalpenak eman beharko dizkiezu.

Ataza

- Janari-multzo bakoitzean gehien kontsumitzen dutena markatuko dute. (5')

Feedbacka

- Ikasle bakoitzak esango du zein produktu aukeratu dituen. Galdetu produktua bere jatorrizko herrian ere ezagutzen zuten edo Euskal Herrira etorritakoan ezagutu duten. (10')

Atazaostea

- Ikasleek beren jatorrizko herrietan gehien kontsumitzen dituzten produktuak gainontzekoei azaltzeko momentua da. **(15)**

Helburu nagusia:

- Janaria erosteko establezimenduak ezagutzea.

Helburuak:

- Entzundako janari-zerrenda ulertzea.
- Establezimenduak identifikatzea.
- Erosketa-zerrenda osatzea.

Zertan den:

- Bikote batek egin behar dituen erosketak entzun ondoren, zerrenda egokia aukeratuko dute ikasleek. Gero, Julianak sukaldaritza eskolarako janariak zein establezimendutan erosiko dituen identifikatu behar dute. Azkenik, nor bere etxeko erosketa-zerrenda osatuko du.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Azaldu ikasleei zein egoera¹ (1. bideo-pasarte) entzungo duten: Marisa bulegoan dago eta etxean falta dituen produktuak erosteko eskatzen dio bere senarrari.
- Ikasleek liburuko lau zerrendetatik Marisarena aurkitu behar dute. (15')

Zuzenketa-orria

C zerrenda

Ataza

- Sukaldaritza-eskolako asteko erosketak egiteko zerrenda eman diote Julianari. Dendaz denda ibiliko da dena erosteko. Ikasleek Julianaren zerrendako produktu bakoitza zein establezimendutan erosiko duen aukeratu behar dute. (20')

Feedbacka

- Ikasleek, binaka jarrita, egindakoa alderatuko dute. (5')

Zuzenketa-orria

HARATEGIA	7 txahal-xerra, 2 oilasko, 400 g ardi-gazta, 300 g urdaiazpiko
ARRANDEGIA	Kilo 1 antxoa, 2 legatz, 400 g muxila, 450 g muskuilu, 300 g ganba
FRUTA DENDA	kilo 1 piper berde, 4 tomate, kilo 1 tipula, 6 baratxuri buru, 8 errege-sagar, 2 limoi, kilo 1 marrubi, perrexila
SUPERMERKATUA	6 litro esne, 2 pakete irin, kilo 1 azukre, 3 pakete kafe, 2 dozena arrautza, 2 kilo babarrun beltz, kilo 1 dilista, 4 kilo arroz, 5 pakete espageti, 3 litro oliba-olio, 2 botila ardo, 12 garagardo
OKINDEGIA	4 barra ogi

¹ Marisaren erosketak. HABEk moldatutako entzute-gaia

- Galdetu ea produktu guztiak ezagutzen dituzten eta eskatu ikasleei zerrenda bat osatzeko ezagutzen ez dituzten hitzekin. Denon artean argituko dituzue hitz ezezagunen esanahia. **(5')**

Atazaostea

- Beren etxerako erosketa-zerrenda idatziko dute. Produkturen bat ezagutu ezean, zerorrek azalduko diezu. **(15')**

Helburu nagusia:

- Elikagai bakoitzari dagokion neurria ezagutzea.

Helburuak:

- Azokaren eta hipermerkatuaren arteko aldeaz aritzea.
- Azokako elkarrizketak ezagutzea.
- Elikagaiak eta neurriak egoki erabiltzea.
- Prezioa galdetzeko egiturez jabetzea.

Zertan den:

- Ikasleek azokaren eta hipermerkatuaren arteko aldeaz jardungo dute. Gero, azokan erosketak egiteko egoera ikusteaz gain, janari bakoitzari dagokion neurriaz jabetu egingo dira. Azkenik, elkarri galdetuz, hainbat produkturen prezioak osatu beharko dituzte.

PROZEDURA:**1****Atazaurrea**

- Azaldu ikasleei herri gehienetan janari-azoka eta hipermerkatua topa daitezkeela eta erosketa-mota desberdinak egiten direla batean eta bestean: azokak bertako produktuak, aurrez aurreko tratua... eskaintzen ditu; hipermerkatuak, berriz, erosotasuna, autozerbitzua, aukera zabala... (5')
- Ikasleei honako hau galdetuko diezu: ea bizi diren herrian janari-azokarik eta hipermerkaturik badagoen, zein motatako produktuak saltzen dituzten (azokan arrainik saltzen den...), eta non egiten dituzten erosketak. (5')

Ataza: entzundako datuak taulan jaso

- Irudietan² (2. bideo-pasarte) bikote bat erosketak egiten agertzen da. Bikote horrek aipatzen dituen produktuak eta kantitateak jaso behar dituzte ikasleek liburuko taulan. (20')

Feedbacka

- Ikasleei taulan jasotakoaren inguruan galdetuko diezu: *Zer erosi dute? Zenbat?* (10')

Zuzenketa-orria

PRODUKTUA	KOPURUA
Arrautzak	Dozena erdia (6)
Letxuga	Bi
Porruak	Dozena (12)
Tipulak	2
Azenarioak	½ kilo
Haragia	3 xerra

² Merkatuan. *BAI HORIXE!* 9. ikasgaia

Gramatika eta diskurtsoa

- Ikasleei prezioak nola irakurtzen diren azalduko diezu: osorik edo modu laburtuan. (5')
- Ikasleak, binaka jarrita, liburuan dituzten produktuei (irudietakoei) prezioa jartzen saiatuko dira. Horretarako, beheko koadroak fotokopiatuko duzu eta nori berea emango diozu. Ikasleek elkarri galdetuko diote gauza bakoitzak zenbat balio duen (*zenbat balio du azukreak?*), zerrenda osatu arte. Produkturen baten izena ezagutzen ez dutenean, liburuko argazkiak seinalatuz galde dezakete: *zenbat balio du honek?* (10')

A IKASLEA

Esnea	1, 05 €
Gurina	2, 25 €
Mamia	0, 95 €
Ogia	0, 65 €
Azukrea	1, 50 €
Gazta	3, 30 €

B IKASLEA

Kafea	3, 00 €
Olioia	4, 15 €
Ardoa	1, 85 €
Garagardoa	2, 95 €
Legatza	6, 25 €
Txuleta	9, 95 €

- Esan ikasleei zerrendako produktu guztiengatik zenbat ordainduko duten kalkulatzeko. Ondoren, egin iezaiozu bati honako galdera: *zenbat da guztira?* Horren helburua *zenbat balio du?/zenbat da?* galderak bereiztea izango da; emaezu erabilera ezberdinen berri. (5')

Guztira: 37,90

Helburu nagusia:

- Erosketa egoeran moldatzea eta praktikatzea.

Helburuak:

- Janaria erosteko ohiko establezimenduak zehaztea.
- Salerosketa-harremaneko egiturak erabiltzea.

Zertan den:

- Guztien artean azokako establezimenduak aukeratuko dituzte. Ikasgelan azoka egoera antzetzuko duzue nork bere janari zerrenda erabiliz eta aurrekontu mugatuarekin. Ikastunitatean zehar ikusitako egiturak eta hiztegia erabili behar dituzue.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Erosketak egingo dituzte gelan. Lehendabizi, zein establezimendu-mota jarriko dituzten erabakiko dute. (5')
- Rolan banaketa egingo da: ikasleen erdiak dendariak izango dira eta besteak bezeroak. Dendariak produktuak eta prezioak erabakiko dituzte. Bezeroek, berriz, B atazan osatu duten euren etxeko erosketa-zerrendako produktuak erosi behar dituzte, baina horretarako diru-kopuru mugatua izango dute: 20 €; beraz, produktuen prezioak galdetu eta kalkuluak egingo dituzte. (10')

Ataza

- Aurreko atazan ikusitako elkarrizketa-ereduak praktikatuko dituzte: dendaria agurtu, zer nahi duen azaldu, zenbat balio duen eta zenbat den galdetu, zein kantitate nahi duen produktu bakoitzetik... Erosketak egin eta gero, rola aldatuko dituzte: dendariak bezero bihurtuko dira... (20')

Feedbacka

- Taldez talde ibiliko zara, erosketak amaitu ostean balorazio orokorra egin dezazun. (5') (Aurreko atazan entzundako elkarrizketen antzeko batzuk dituzte liburuan, nahi izanez gero irakur ditzaten.)

3. Eranskinak

B ATAZA: JULIANAREN EROSKETAK

1. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 0' 56''

Marisaren erosketak

- MIKEL Bai, esan?
MARISA Egun on Mikel! Gauza batzuk falta dira etxean. Egingo al dituzu erosketak?
MIKEL Bai maitea, nola ez bada! Zer erosi behar dut?
MARISA Ba... bi kilo sagar, dozena bat arrautza —fresko-freskoak—, eta sei porru ere bai, mesedez. Haragia ere behar dugu: txahal-xerrak.
MIKEL Zenbat?
MARISA Lau... lau txahal-xerra.
MIKEL Ongi.
MARISA Etaaaa... urdaiazpikoa ere bai: 200 gramo. Ardo botila bat ere ekar ezazu gaur afaltzeko.
MIKEL Beltza ala gorria?
MARISA Beltza eta Errioxakoa noski!, badakizu...
MIKEL Besterik?
MARISA Mmm... bai, umearentzako jogurtak: lau.
MIKEL Eta, zein zapore?
MARISA Naturalak, besteak ez zaizkio gustatzen.
MIKEL Ongi da.
MARISA Gauera arte bihotza!

C ATAZA: AZOKAN

2. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 4' 49''

Merkatuan. *BAI HORIXE!* 9. ikasgaia

- EMAKUMEA Hara! Arrautzak.
GIZONA Ez, orain ez, gero.
EMAKUMEA Ez, ez, orain. Zuk, bitartean. ogia erosi.
GIZONA Eta non dago okindegia?
EMAKUMEA Hor, aurrean duzu.
EMAKUMEA Egun on!
SALTZAILEA 1 Berdin. Zer nahi duzu?
EMAKUMEA Arrautzak. Hauek zenbat balio dute?
SALTZAILEA 1 Dozenak 2 € balio du.
EMAKUMEA Garesti!
SALTZAILEA 1 Baina oso onak dira. Gorri-gorriak. Zenbat nahi duzu?
EMAKUMEA Dozena erdia nahi dut.
SALTZAILEA 1 Hartu. Argi ibili!
SALTZAILEA 1 Besterik?
EMAKUMEA Ez, besterik ez. Tori 1 €
SALTZAILEA 1 Eskerrik asko eta agur!
EMAKUMEA Kontuz! Arrautzak.
GIZONA Eta orain?

EMAKUMEA Orain, barazkiak.
 EMAKUMEA Azkena, mesedez?
 BEZEROA Ni bigarrena naiz. Hori da azkena.
 SALTZAILEA 2 Orain?, nor da orain?
 EMAKUMEA Gu gara.
 SALTZAILEA 2 Zer nahi duzue?
 EMAKUMEA Letxugarik baduzue?
 SALTZAILEA 2 Bai, nolakoa nahi duzue: handia, txikia...?
 EMAKUMEA Txikiak. Bi txiki.
 GIZONA Ekarri.
 SALTZAILEA 2 Besterik?
 EMAKUMEA Bai, porruak.
 SALTZAILEA 2 Zenbat nahi duzue?
 EMAKUMEA Dozena bat.
 GIZONA Hemengoak dira?
 SALTZAILEA 2 Jakina! Baserrikoak eta merke-merkeak.
 EMAKUMEA Tipulak eta azenarioak ere nahi ditugu.
 GIZONA Bi tipula eta... azenarioak, kilo erdi bat.
 SALTZAILEA 2 Bai, berehala.
 EMAKUMEA Eta arrautzak?
 GIZONA Hara! Bustita dago. Eskatu poltsa bat.
 EMAKUMEA Zuk eskatu.
 EMAKUMEA Babarrunik baduzu?
 SALTZAILEA 2 Lastima da, baina... ez.
 EMAKUMEA Orduan, zenbat da?
 SALTZAILEA 2 3 €
 GIZONA Poltsa bat, mesedez.
 GIZONA Orain harategira?
 EMAKUMEA Beno... agur!
 GIZONA Agur!
 SALTZAILEA 2 Bai, agur eta eskerrik asko!

SALTZAILEA 3 Zer nahi duzue?
 GIZONA Haragia. Bi xerra nahi ditugu.
 EMAKUMEA Zenbat balio du honek?
 SALTZAILEA 3 Kiloak 9 €
 EMAKUMEA Aizu, gutxi da. Beste xerra bat, mesedez.
 SALTZAILEA 3 Besterik? Gazta edo txorizoa? Gazta primerakoa da: Idiazabalgoa.
 EMAKUMEA Ez, ez, ez dugu nahi. Eskerrik asko.
 GIZONA Diru gutxi dugu.
 EMAKUMEA Zoritxarrez.
 EMAKUMEA Zenbat da?
 SALTZAILEA 3 4 €
 EMAKUMEA Kontuz! Arrautzak.
 GIZON 2 Lastima!

EGILEAK

Proiektuaren arduraduna:	Juxto Egaña (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)
Koordinatzaile didaktikoak:	Begoña Martinez (HABEko teknikaria) Sabin Zabala (HABEko teknikaria)
Partehartzaileak:	Ainhoa Gaintza (Planiker) Belen Benitez (Planiker)
Errealizazio didaktikoa:	Felix Sainz (HABEko teknikaria)

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkio Planiker enpresari materialgintza-proiektu honetan parte hartzeagatik.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak:

Gure esker ona ondoren aipatzen diren hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako.

Marisaren erosketak. HABEk moldatutako entzute-gaia
Merkatuan. *BAI HORIXE!* 9. ikasgaia